# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko urriaren 28a / 734. zenbakia

**OSOKO BILKURA/** 2006rako Udal Ordenantza Fiskalak onartu dituzte

# Oro har, %4ko igoera izango dute datorren urtean udal zergek, salbuespenekin

UBANE MADERA

**Zergen igoeran izango diren salbuespenek piztu zuten PPren eta PSE-EEren kritika, Udal Ordenantza Fiskalak onartzeko orduan. PPk kontra bozkatu zuen eta PSE-EE abstenitu egin zen. Edozelan ere, aldeko botoen batuketari esker (11) onartu zituzten ordenantzak.**



U.M.

**Zaborrak batzeko zerbitzua ordaintzeko orduan, Mankomunitateko gainerako herriekin parekatzeko ezarriko dute %17,7ko igoera.**

Batez beste %4ko igoera izango dute Udal Ordenantza Fiskalek datorren urtean. Hala onartu zuten martitzenean, osoko bilkura berezian.

Kontsumo Prezioaren Indizearen (KPI) arabera kalkulatu dute igoera hori. Edozelan ere, KPIk ezarritakoa baino igoera handiagoa izango dute zenbait zergak. Horrek eragin zituen oposizioaren kritikak. Hala, PPk Udal Ordenantza Fiskalen proposamenaren kontra bozkatu zuen; PSE-EE abstenitu egin zen eta alde bozkatu zuten EAJk, EAk, Aralarrek eta EBk.

**SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

Sei salbuespen izango dira ordenantzen igoera orokorrean: Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga (OHGZ) %8 igoko dute; ura, batez beste, %5 igoko dute; zaborra %17,7 igoko dute; kiroldegia (AUKEA) %7; hilerriko errausketa zerbitzua %15 Arrasatekoendako eta %17 kanpokoendako; eta Laubideko parkingaren tarifa igoko dute 0,50etik 0,60ra.

Hobariei dagokienez, Bizigune programan dauden etxebizitzek %25eko deskontua izango dute OHGZn (PPk proposatuta). Eguzki energia baliatzeko sistemak jartzen dituzten obra berrien eraikuntzan, berriz, %30eko deskontua izango dute Eraikuntza, Obra eta Instalazioen Gaineko Zergan. Eta irabazi asmo bako elkarteek %100eko deskontua izango dute Bide Publikoaren Erabilera Pribatuaren Gaineko zergan (OVP).

**OPOSIZIOAREN KRITIKAK**

Salbuespenei dagokienez, PP eta PSE-EEk, biek hala biek erakutsi zuten horietako zenbaiten igoeraren kontrako jarrera. Hain zuzen ere, ez daude ados zaborraren zergak, urarenak, OHGZren zergak eta hilerriko errausketa zerbitzuak izango duten igoerarekin.

PPko bozeramaile Itziar Lamarainen esanetan, "igoera horiek gehiegizkoak dira (…) Herritarren poltsikorako jasanezina da (…) Planteamendua egiten bada apurka-apurka ordaintzeko, ahal izango litzateke". Halaber, gaineratu zuen OHGZren, zaborraren… igoerak, nahiz eta bakarka handiak ez izan, guztiak batuta badutela eragina: "Azkenean herritarrek dirua ordaindu beharko dute eta eurei soldatak KPI bakarrik igoko diete". Erraustegiari dagokionez, PPko bozeramailearen iritziz, arrasatearrek ordaintzen dutenaren eta kanpotarrek ordaintzen dutenaren artean desberdintasun handiagoa egon beharko luke. Eta bukatzeko, Lamarainek *ziztadatxo* bat ere bota zuen: "Azken batean, kontua da kopuru horiek guztiak igo egin behar ditugula, baina Udalak 100 milioi pezeta (600.000 euro) ditu "oparitzeko"; jendeak badaki zeren gainean nabilen".

*Errausketaren kasuan, PSE-EEk uste du baztertzailea dela kanpokoek gehiago ordaintzea*

Bestalde, PSE-EEko Blanca Roncalek adierazi zuen OHGZren kasuan igoera apurka egin beharko litzatekeela. Eta oro har, uste dutela hurrengo urteei begira hausnarketa egin eta udal ordenantzen gaia sakonago landu beharko luketela: "Proposatzen dugu urtarriletik aurrera hastea gai hori lantzen". Errausketa zerbitzuarekin lotuta, berriz, uste dute baztertzailea dela eta akaso ez dela legezkoa kanpotarrek arrasatearrek baino gehiago ordaintzea. Biek berdin ordaindu beharko luketela uste dute.

**ALKATEAREN ERANTZUNA**

Oposizioari erantzunez, Inazio Lakuntza alkateak zera adierazi digu: "OHGZren igoera apurtxo bat altua izango da. Baina horrek esan nahi du orain arte behealdean izan dela Arrasate, eta pixkanaka-pixkanaka joan behar du gainerako herriekin parekatzen".

Zaborrari dagokionez, berriz, honakoa adierazi digu: "Kopuru hori bihurtzen baduzu igoera absolutu, familia bakoitzari egokituko zaio urtean bakarrik bederatzi euro gehiago ordaintzea. Beraz, igoera ez da horren gogorra. Bestalde, guk zaborra sortu egiten dugu eta pentsatu behar dugu horrekin zer egin".

## 2006ko zerga batzuk, zenbakitan

**Zaborra, etxekoak:** 30,35 €, seihileko.
**Edateko ura, etxekoa, 50 m³ra arte:**
Kuota finkoa: 16 € (kalibrearen araberakoa)
Metro kubiko bakoitzeko: 0,41 €
**Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga:**
**Hiri-lurra:**
Industria zoroetarako: %0,4440
Gainerako hiri ondasunak: % 0,1775
**Landa-lurra:** 1,0633%
Hobaria izango dute, familia ugariek eta Bizigune programaren barruko etxebizitzek
**Hilerriko zerbitzuak:**
Panteoiak: (lau hilobi, titular bakarra): 8.400 €
Hormako hilobiak: (lau hilobikoa, titular bakar bakoa): 600 €
Hezurtegia (10 urterako): 104,30 edo 122,30 €
Errausketa (Arrasaten erroldatuta): 230 €
Beilatokia: 60 €

**Kiroldegiko instalazioak:**
**Igerilekuko edo kiroldegiko abonuak:**
Indibiduala:
1986 eta 2004 artean jaiotakoak: 61,40 €
1985ean edo aurretik jaiotakoak: 103 €
Familiarra (20 urtetik beherako seme-alabekin): 161,35 €
**Abonu plusa (Igerilekua + kiroldegia):**
Indibiduala:
1986-2004 urtean jaiotakoak: 92,25 €
1985ean edo aurretik jaiotakoak: 154,45 €
Familiarra (20 urtetik beherako seme-alabekin): 242,10 €
**Garabia:**
Eramateagatik (automobilak, furgonetak, kamionetak eta antzekoak): 56 €
**Txakurrak kaletik jasotzea:** 11,50 €
Txakurtegiaren mantenua, eguneko: 5,20 €

**SALAKETA/** EBk lehengo udal gobernuaren jarrera salatu du (EAJ-EA-PSE-EEk osatutako gobernuarena)

# 300.000 euro ordaindu beharko dizkio Udalak arkitekto bati; hala salatu du EBk

UBANE MADERA

**Hain zuzen ere, EBk zera salatu du: "EAJ-EA-PSEk osatutako lehengo gobernuaren kazike jarrerak 300.000 euro kostako zaie arrasatearrei". 98ko gertaera baten gaineko salaketa da hori. Udalaren eta Antonio Perkaz arkitektoaren arteko istiluak eragindako salaketa.**



U.M.

EBk orain egin du salaketa, orain jakin dutelako kontabilizatu dutela ordaindu beharreko kalte ordaina; argazkian, udaletxea.

Kontua zera da: 1998an, Udalak erabaki zuen Antonio Perkaz arkitektoa ez zela gai funtzionario izateko; hark arazoak izan zituelako Udaletik kanpokoekiko harremanetan; eta horrek Udalaren irudiari kalte egiten ziolako.

Hala, arkitektoak praktiketako aldia bukatu zuenean, Udalak erabaki zuen ez ematea funtzionario kargua eta lanpostu hura "hutsik" uztea. Horren ondorioz, Antonio Perkaz arkitektoak Arrasateko Udaleko lanpostua utzi egin behar izan zuen. Hori dela eta, Antonio Perkazek Udalaren erabakiaren kontrako errekurtsoa ipini zuen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian.

**ARKITEKTOAREN ALDEKO EPAIA**

Hala, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak erabaki zuen Perkazen errekurtsoa onartu egingo zuela. 2003ko abenduan hartu zuen erabakia.

Oro har, hiru erabaki nagusi hartu zituen epaitegiak: bertan behera uztea Arrasateko Udalak arkitektoarekiko hartutako erabakia; Antonio Perkazek eskubidea zuela Arrasateko Udaleko lanpostua berreskuratzeko; eta Udalak ordaindu egin beharko diola kalte ordaina, Udalaren erabaki haren ondorioz "ordainsari ekonomikoa galtzearren". Erabaki hori hartu zuen, besteak beste, argudiatuz Udalak ez zuela frogarik erakutsi arkitektoaren gaitasunik eza justifikatzeko.

**300.000 EURO**

Antonio Perkaz arkitektoak, oraingoz, uko egin dio Arrasateko postua berreskuratzeko aukerari.

Kalte ordainari dagokionez, berriz, Ezker Batuak salatu du Udalak 300.000 euro eman beharko dizkiola Antonio Perkazi. Halaber, esandakoaren arabera, eurek (EBk) oraintsu jakin dute kalte ordain hori Udalak kontabilizatu egin duela eta kopuru osoa 259.700 euro dela. Gaineratu du Udalak ordaindu beharko duela, baita ere, epaitegietan sortu den gastua.

Horren harira, EBren izenean Ander Rodriguez zinegotziak salatu du Udalak dirutza hori ordaindu behar duela "lehengo gobernuaren kazike jarreraren" eraginez. Kalifikatu du *sorgin-ehiza* egin zutela. "Alkate izandako Jose Mari Loitik, EAren eta PSEren adostasunarekin egindako bidegabeko kaleratzea" izan zela hura gaineratu du, "Udaletik kanpoko presioek eragindakoa".

*Udalak oraindik ez du ordaindu kalte ordaina, behin betiko kopurua zehazteke dagoelako*

Erabaki hori babestu zuten lehengo zinegotziek "dagozkien ardurak onartu" beharko dituztela ere uste du eta herritarrei "barkamena eskatu" beharko diotela aditzera eman zuen. Rodriguez Lejartzaren ustez, erabaki hark "langileen eta egin zituzten mobilizazioaren aldeko errespetu gutxi edo ezer ez" erakutsi zuen. Zera ere gaineratu zuen: "gutxi batzuek egindako ilegalitateak eta gehiegikeriak guztien artean" ordaindu behar izatea deitoratu zuen.

**ATZERA EGINEZ**

Udalak erabaki hori hartu zuenean, Jose Maria Loiti (EAJ) zen alkate. Hark (Hirigintza Saileko buru ere bazen) eta Paco Gartzia sozialistak (Hirigintzako batzordekide eta Pertsonal Saileko buru) aditzera eman zuten, oro har, jakin zutela "praktiketan zegoen funtzionario hark arazoak izan zituela kanpokoekiko harremanetan; eta horrek Udalaren irudiari kalte egiten diola". Eta horregatik ez zela komeni behin betiko funtzionario izendatzea. EAren izenean, Juan Antonio Barriocanalek esan zuen berak ere entzun zituela "kontrako komentarioak" eta ados dagoela esatean udal langileek erakusten duten irudiak Udalaren irudian eragina izan dezakeela.

**DESADOSTASUNAK: EB ETA HB**

Bestalde, argudio horrekiko desadostasuna erakutsi zuten Ezker Batuaren izenean Angel Tijero zinegotziak eta Herri Batasunaren izenean Xabier Zubizarreta zinegotziak. Biak hala biak ziren Hirigintzako batzordekide.

Angel Tijerok, besteak beste, zera adierazi zuen: arkitektoa behin betiko funtzionario ez izendatzeko erabakia "kanpotik etorritako presioengatik" hartu zutela eta zurrumurruen arabera, karga politikoren bat ere izan dezakeela. Uste duela *sorgin-ehiza* egiten dabiltzala eta kontsideratu beharko luketela arkitektoa gai dela kargurako. Halaber, Perkazi beste aukera bat emateko ere eskatu zuen.

Xabier Zubizarretak, berriz, oro har bat egin zuen Tijerok esandakoarekin. Zubizarretaren iritziz, ez ziren irizpide objektiboak erabili arkitektoa funtzionario ez izendatzeko. Halaber, gaineratu zuen, bestelakoen artean, kanpoko instituzioen iritziak ez direla objektiboak eta kanpoko iritziak ezin direla kontuan hartu pertsona bat kontratatzeko.

Kontuak kontu, bozketan, EAJren, EAren eta PSE-EEren botoak gehiago izan ziren. Eta erabaki zuten Perkaz ez izendatzea behin betiko funtzionario.



## Pobreziari aurre egiten laguntzeko

Pobrezia Zero plataformak deituta, joan den astelehenean, hilak 24, kale agerraldia egin zuten Herriko Plazan. Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako ordezkariek parte hartu zuten ekimenean. Horrez gainera, zenbait herritarren atxikimendua ere izan zuten. Bestelakoen artean, laguntza ofizial gehiago eta hobeak, ordaindu ezineko zorra barkatzea eta nazioarteko merkataritzaren arauak aldatzea eskatu zuten. /ARRASATE PRESS

## LABUR

### Domu Santu egunean autobus zerbitzu berezia

Honako abisuak helarazi dizkigute Udaletik: Aldai hilerria ere dute zabalduko. San Kristobal hilerria, berriz, zabalduko dute urriaren 31n eta azaroaren 1ean, 09:00etatik 20:00ak arte. Urbanoari dagokionez, zerbitzu berezia ipiniko dute, Gorostizatik aterata: azaroaren 31n, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00ak arte, orduro. Eta Domu Santu egunean, 10:00etatik 13:00ak arte eta 15:30etik 18:30ak arte, ordu erdian behin.

**ETXEBIZITZAK/** Arrasaten Bizigune abiarazi zutenetik hona, urtebete

# Espero baino jende gutxiagok parte hartu du orain arte Bizigunen, teknikariaren ustez

UBANE MADERA

**Arrasateko Udalak eta Jaurlaritzak orain dela urtebete hitzartu zuten Bizigune programa Arrasaten abiaraztea. Harrezkero, hamar etxebizitza merkaturatu dituzte, errentan emateko. Teknikariaren ustez, gutxiegi dira, hutsik dauden etxe kopurua kontuan hartuta.**



MIKEL LUPIAÑEZ

**Bizigune programak bost urterako errenta kontratua ziurtatzen dio etxebizitzaren jabeari.**

Bizigune programa da hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko Jaurlaritzak bideratutako programa, Visesaren bitartez. Hain zuzen ere, helburua da etxe horiek errentan ematea, gutxienez, bost urterako.

Helburu horrekin, EAEko zenbait udalek konpromisoa hartu zuten Bizigune programa herritarrengana ahalik eta gehien gerturatzeko. Eta Debagoieneko gainontzeko udalek Suradesaren bitartez kudeatuko dute programa.

Arrasateko Udalak Bizigunen parte hartzeko konpromisoa hartu zuen, 2004ko urriaren 18an. Nerea Lazpiur izendatu zuen Bizigune programan jarduteko; besteak beste, Nerea Lazpiurrek laguntzen die etxeren bat errentan eman gura duten arrasatearrei.

**BALORAZIO GAZI-GOZOA**

Udal teknikari Nerea Lazpiurrek eman digu urtebete honetako lanaren emaitzen berri: "Urtebetean hamar bat etxebizitza sartu ditugu programan. Batzuk errentan daude dagoeneko. Beste etxebizitza batzuk obretan dabiltza, merkaturatzeko prestatzen. Eta beste etxejabe batzuek ezetz esan digute. Bestalde, lehenagotik ere baziren etxebizitza batzuk (19, guztira) merkaturatuta, baina ez guk bideratuta".

Datuok esku artean, balorazio gazi-gozoa egin du udal teknikariak: "Kanpainak-eta egiten direnean, mugimendu handiagoa igartzen da. Behintzat, jendea informazio eske etortzen da. Esaterako, orain, udazkenean mugimendu handia dago.

Oro har, programa oso poliki doa, baina jendea animatzen dabil. Herritarrek akaso beldurra dute, edo konfiantza falta dute edo ez dute informaziorik; baina poliki doa. Azken batean, oso jende gutxi etortzen da, eta, besterik ez bada, informazio bila jende gehiago etorriko zela espero genuen; eta bereziki kontuan hartuta hutsik dauden etxeak alferrik galtzen direla. Eta nik uste dut programa positiboa eta onuragarria dela".

**BIZIGUNEREN FUNTZIONAMENDUA**

Biziguneren bitartez etxebizitza bat errentan emateko, etxebizitza horrek urtebetean gutxienez hutsik egon behar du. Hala, bada, etxebizitza horren jabeak Nerea Lazpiurrekin harremanetan jarri beharko du eta hark emango dio programaren gaineko informazio guztia, eta hark egingo dizkio, baita ere, hasierako burokrazia kontuak, Donostiara (Etxebidera) joan beharra izan barik.

Etxearen gaineko informazioa Donostiara bidali ostean, handik teknikari bat bidaliko dute, etxearen egoera ikuskatzera. Txosten bat egingo du teknikariak. Txostenean zehaztuko du etxebizitzaren egoera: igogailurik baduen, azpiegituren egoera, non dagoen kokatuta, obrarik behar duen... Horrek guztiak lagunduko du zehazten etxeari ezarriko dioten prezioa: "Sekula ez dute ordainduko 660 euro baino gehiago".

Eta informazio guztia esku artean duela, etxearen jabeak erabakiko du Bizigune programan aurrera egin edo ez; kontratua sinatu behar du horretarako: "Sinatu arte, jabeak ez du inolako konpromisorik hartzen". Hortik aurrera, Etxebide arduratuko da guztiaz: etxea merkaturatzeaz, maizterrarekin izan beharreko harremanez..."Gainera, bost urteak bukatutakoan, Bizigunek etxea bueltatuko dio jabeari hasierako baldintza beretan; jakina, bost urteko desgaste naturalarekin".

**ZELAN MERKATURATZEN DITUZTEN**

Etxebidek eskaintzen duen etxe horietakoren bat errentan hartu gura duenak Etxebideren (Bizigune programan) zerrendetan eman behar du izena. Hori egiteko bi bide daude: 012 telefonora deituta edo zenbait aurrezki-kutxatara joanda.

Zerrenda horretako izenen artean, haien diru-sarreren arabera banatzen dituzte gero etxebizitzak: "Garestienak diru-sarrera handienak dituztenei ematen dizkiete. Familia mota ere kontuan hartzen dute: etxe txikiak pertsona bakarrarendako, kide gehiago dituztenendako handiagoak... Bukatzeko, pertsona horrek Bizigune programan daraman denbora ere kontuan hartzen dute".

Bizigunek eskaintzen dituen etxeen alokairua, berriz, izaten da, asko jota, errentan hartu gura duen pertsonaren diru-sarreren %30. Eta lehen esandako moduan, bost urterako ematen dute errentan etxebizitza.

## Biziguneren onurak; jabeen betebeharrak

**Bizigune programaren onurak:**

- Etxebizitza errentan dagoen bost urteetan, hilero ziurtatzen diote errenta jabeari, nahiz eta maizterra bost urteak bukatu baino lehen joan.
- Etxebizitza zaharren kasuan, obra behar badute, 18.000 euroko kreditua ematen diote jabeari, interes barik.
- Jabea ez da ezertaz arduratu behar. Maizterrarekin izan beharreko harremana Jaurlaritzak bideratuko du.
- Alokairuak merkatuan daudenen araberakoak dira; apurtxo bat txikiagoak bai, Jaurlaritzak kudeatu duelako errenta hori eta sekula ez 660 euro baino gehiago.
- Onura fiskalak: obrak egin behar badituzte, obren zergetan %50eko deskontua dute; eta IBIan (Ondasun Higiezinen Gaineko Zergan), bost urteetan, %25eko deskontua (PPk proposatuta).

**Etxebizitzen jabeek betebeharrekoak:**

- Etxebizitzak ezin du izan babes ofizialeko kalifikazioa.
- Ezin ditu izan 120 m² baino gehiago.
- Gutxienez, etxebizitza urtebetean hutsik egon behar da.
- Bizitzeko baldintza duinak behar ditu.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**EGUBAKOITZA, 28**
Irizar. Erguin 11 . . . . . . . . . . . . 943 79 12 39

**ZAPATUA, 29**
Amezua. Santa Marina 32 . . . . 943 79 09 74

**DOMEKA, 30**
Español. Araba etorb. 14 . . . . . 943 79 18 65

**ASTELEHENA, 31**
Ruiz. Maala 31 . . . . . . . . . . . . 943 79 14 09

**MARTITZENA, 1**
Zabala. Zarugalde 42. . . . . . . . 943 77 16 30

**EGUAZTENA, 2**
Azkoaga. Ferrerias 1 . . . . . . . . 943 79 15 15

**EGUENA, 3**
Azkoaga. Iturriotz 17 . . . . . . . . 943 79 79 99

**EGUBAKOITZA, 4**
Corcuera. M. Aranbarri 1 . . . . . 943 79 22 26

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igualatorioa. . . . . . . . . . . . . . 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. . . . . . . . . . . . . . . . 943 79 39 00
Emakumeak . . . . . . . . . . . . 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea . . . . . . 943 79 90 11

**LARRIALDIAK**
SOS Deiak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 112
Gurutze Gorria. . . . . . . . . . . . 943 76 55 76
DYA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua . . . . . . . . 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera . . . . . . 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan . . . . . . . . 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

**Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. . . . . . . 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak . . . . . . . . . . 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. . . . . . . . . . . . 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak . . . . . . 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44

**ERTZAINTZA**
Arrasate . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 79 71 99

**SUHILTZAILEAK**
Udal taldea . . . . . . . . . . . . . . 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . . . . . 088

**MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . . . 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) . . . . . . 943 12 01 62
Gasa. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 900 40 05 23
943 79 78 44

**GARRAIOAK**
Taxiak . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 79 12 22
PESA. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza . . . . . . . . . . . 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza . . . 943 79 81 57

**MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron. . . . . . . . . . . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

**San Juan parrokia**
Zapatua
**19:00** (elebiduna)
Domeka
**09:00** meza nagusia
**11:00** meza nagusia (euskaraz)
**12:30** (elebiduna)

**San Frantzisko eliza**
Zapatua
**19:00** (elebiduna)
Domeka
**09:00** (euskaraz)
**10:00** (elebiduna)
**12:30** (elebiduna)
**19:00** (elebiduna)

**Uribarri parrokia**
Zapatua
**19:00** (elebiduna)
Domeka
**12:00** (elebiduna)

**San Andres eliza**
Zapatua
**19:00** (elebiduna)
Domeka
**10:00** (gazteleraz)
**11:00** (euskaraz)
**12:30** (gaztelaniaz)

**Santa Teresa eliza**
Domeka
**12:30** (gaztelaniaz)

**Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
**19:00** (gaztelaniaz)
Domeka
**11:00** (elebiduna)

**San Isidro**
Domeka
**12:30** (gaztelaniaz)

## OHARRAK

**TXIKILANDIARAKO BEGIRALEAK**
Urtero moduan, Txatxilipurdik Txikilandia jolasparke erraldoia antolatu du urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5erako. Dagoeneko zabaldu dute begiraleen izenematea. Interesatuek Txatxilipurdira jo beharko dute , curriculuma aurkeztu eta izena ematera.

**MOZAMBIKEREN GAINEAN**
Eguenean, hilaren 3an, Beñat Artzadunek *Eraldaketa itxaropena, Mozambikeko programa integrala* berbaldia emango du Monterronen, 19:00etan. Harreman eta Mundukidek antolatuta.

**3.60 ARETOKO KONTZERTUA**
Bihar, zapatua, Señor No eta Lobo Electrico taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan.

**LUDOTEKA IBILTARIA**
Azaroaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria egingo du San Andresko gazte txokoan, 11:00etatik 13:30era. 3 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzenduta egongo da.

**FILMAK AMAIA ANTZOKIAN**
Gaur, egubakoitza, zapatuan, domekan eta astelehenean, beldurrezko *Dark Water* filma emango dute.

## AEDren AGENDA

**ARRASATE LEHIAKETAK**
AEDk XIX. Arrasate Lehiaketak antolatu ditu. Otsailaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dituzte bertso paperak, poesia, komiki edo ipuinak.

## URBANOEN ORDUTEGIA

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L.Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

## ORAIN DELA 10 URTE ARRASATEN

# Antonio Cancelo MCCko presidente



Javier Mongelos erretiratu zenean, Antonio Cancelok hartu zuen MCCko Kontseilu Orokorreko presidente kargua. Cancelok lehen pausoak Eibarko kontsumo kooperatiban eman zituen. Horren ostean, Eroskin hasi zen lanean. Kargua hartzean, prentsaurrekoa egin zuen.

## BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### "Korroskara"




—*Turkian maixan korroskariak botatzia edukaziño onan seiñale ei da.*

JON IRAEGI

## HAU GIROA!

**MINIMOA** Eguaztena, 19 — **8 ºC**

**MAXIMOA** Martitzena, 25 — **25 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **14,7 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 19** | 20 ºC | 8 ºC | 1,5 l/m² |
| **Eguena, 20** | 19 ºC | 9 ºC | 0,5 l/m² |
| **Egubakoitza, 21** | 23 ºC | 13 ºC | – l/m² |
| **Zapatua, 22** | 21 ºC | 13 ºC | 12,7 l/m² |
| **Domeka, 23** | 18 ºC | 14 ºC | – l/m² |
| **Astelehena, 24** | 21 ºC | 9 ºC | – l/m² |
| **Martitzena, 25** | 25 ºC | 19 ºC | – l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

## ARRASATE IRRATIA FM 107.7




## Domu Santuko zubian ere Arrasate Irratiaren konpainia izango duzu elkarrizketa bildumarekin

107.7ko autobusak atseden hartuko du eguaztena bitartean. Izan ere, Domu Santu eguna dela-eta, Arrasate Irratian ez da eguaztena bitartean zuzeneko saiorik egongo.

Horrek ez du esan gura, baina, Arrasate Irratiko entzuleak eskuhutsik geratuko zaretenik, datozen egunetarako elkarrizketa bilduma bat beharrean, bi prestatu dizkizuegu-eta. Zapatu eta asteleheneko sortan, besteak beste, Eroskiko *on-line* zerbitzuko arduradun Xurdana Fernandezek Internet bidezko etxeko erosketak egiten lagunduko digu. Domeka eta martitzeneko bilduman, berriz, besteak beste Arrasateko hainbat zinegotziren euskara irakasleekin izango gara.

**EGUAZTENEKO IBILBIDEAN**

Eguazteneko Loratega geltokian, Irene Zenitagoiarekin neguko orkideen gainean jardungo dugu. Baina merkatu txikiaren geltokiaren ere izango gara. Zerbait saldu edo erosi gura baduzu, 943 71 17 31 zenbakira deitu.

ARRASATE IRRATIA

## ASTEKO PROGRAMAZIOA

**ZAPATUA**
10:00 **Elkarrizketa bilduma I.**
Xurdana Fernandez, Eroski on line; Lorategia geltokian, Krisantemoak berbagai; Gose musika taldea...

**DOMEKA**
10:00 **Elkarrizketa bilduma II.**
Zinegotzien euskara klaseak; Gorka Julio, internauta...

**ASTELEHENA**
10:00 **Elkarrizketa bilduma I.**

**MARTITZENA**
10:00 **Elkarrizketa bilduma II.**

**EGUAZTENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31)

11:05 **Musika**
12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
12:20 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
17:15 **Zorion agurren tartea (errep.)**




DEIANE ARRIETA

Batasuneko eta gizarte mugimenduetako hainbat kidek azaldu zuten Bide Eginez eztabaida prozesua zertan den.

# Bide Eginez eztabaida prozesua abiarazi du ibarrean Batasunak

*Ekarpen politiko berritua egitea da prozesu horren helburu nagusia*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Batasunak Euskal Herriko herri guztietan ipiniko du abian Bide Eginez eztabaida prozesua. Debagoieneko herrietan ere hasiak dira batzarrak egiten eta herri gehienetan aurki egitekoak dira. Prozesu horren nondik norakoak azaldu ditu Batasunak.**

Bide Eginez eztabaida prozesuaren emaitzarik garrantzitsuena "Euskal Herria eraikiz ekarpen politiko berritua egitea" izango dela esan dute Batasunekoek: "Anoetan *Orain herria, orain bakea* gatazka konpontzeko proposamena aurkeztu genuen bezala, orain zutabe estrategiko eta eskubideen defentsa egin nahi dugu".

**BI BATZAR HERRI BAKOITZEAN**

Eztabaida prozesu horretan, urria eta abendua bitartean herri bakoitzean bi bilera egingo dira hiru gai nagusi lantzeko. Lehen batzarrean azken lau urteetan egindakoaren balantzea egin eta ildo politikoaren txostenaren gaineko eztabaida izango dute. "Hiru zutabe azpimarratu ditugu ildo politikoan: gatazkaren konponbidea; biharko Euskal Herria eraikitzea gaurtik hasita; eta Estatuek Euskal Herriari egiten dioten erasoei erantzutea".

*Prozesu horrekin, zutabe estrategikoen eta eskubideen defentsa egin nahi dute Batasunekoek*

Bigarren batzarrean, ildo politikoaren eztabaidan sakontzeaz gain, antolakunde eredua definituko dute; euren helburu politikoei eta egunerako ildoei heltzeko behar dutena. Ondoren, herrietako zein maila nazionalerako egiturak aukeratuko dituzte.

Bergaran asteon egin dute lehen batzarra eta ibarreko beste herri batzuetan ere ipini dituzte egunak: Arrasaten azaroaren 2an; Aretxabaletan azaroaren 3an; Antzuolan azaroaren 5ean; Elgetan azaroaren 10ean .

Prozesua urtarrilean amaituko da, Nazio Biltzarra eginda.

# Zabor tasak modu bateratuan igotzea adostu dute ibarreko Udalek

I.A.

Debagoieneko Mankomunitateko Udalek 2006. urtean zaborrak bildu, garraiatu eta ezabatzeko tasa berriak ipintzea adostu dute asteon egindako batzarrean.

Tasak udal guztien artean adostutakoak izango dira. Mankomunitatekoen esanetan, "garrantzitsua da zabor tasen homogeneotasuna eskualde osoan, zerbitzua era mankomunatuan eskaintzen baita herri guztietarako irizpide berberekin".

Mankomunitatekoen esanetan, "zabor bilketak, garraioak eta zabortegian ezabatzeak kostu oso handia du. Herritarrek sortutako zabor kopurua urtero igotzen da, beraz, gastuak ere nabarmen gehitzen dira".

Batez besteko igoera hileko 0,76 eurokoa da etxebizitzetan; 6,62koa merkataritzan, 8,33koa ostalaritzan eta 15,60koa industrian. Igoeran zeresan handia izan du Sasieta zabortegia Europako zabortegiei buruzko lege berrietara egokitzeak.

# MCCrekiko kritiko agertu da Ahots Kooperatibista taldea

*MCC barruko korronteak aurkezpena egin du*

GOIENKARIA

**Lau urte daramatza lanean Ahots Kooperatibista taldeak. MCC barruko iritzi korronte kritiko bezala aurkeztu du bere burua. Arrasaten egin zuen agerraldia eguaztenean.**

Ahots Kooperatibista taldeak 2000. urtea ezkero dihardu lanean. 100 bazkide inguru ditu eta kuota bat ordaintzen dute hilean. Besteak beste, argitaratzen dute aldizkari bat hiru hilabetean behin, 900 alekoa. Eguaztenean egin zuten agerraldia Monterron jauregian.

Taldearen egitekoen artean bi aipatu zituzten: batetik, MCCko kooperatibetako lan baldintzak hobetzea; bestetik, balio kooperatiboak gaurkotzea, balio horiek barneratuz eguneroko jardueran eta gestio planetan.

**"KAPITALISMOAREN PAREAN"**

Ahots Kooperatibista taldeko kideak oso kritikoak agertu ziren MCCk azkenaldian hartu duen bidearekin. Bereziki kritikatu zuten MCCk duen lan antolakuntza eta kapitalismoaren parean jarri zituzten MCCren lan eta produktibitate praktika batzuk. "Langileen artean bultzatzen dituen ezberdintasunak" ere kritikatu zituzten. Bestalde, azpimarratu zuten "kooperatibismoaren gainbehera".

Adierazi zuten aldi baterako langileak %30 direla MCCn eta, horretaz gain, Hirugarren Munduko herrietan ezartzen dituzten enpresetan ez dituztela kode etikoak behar bezala bermatzen.




XABIER URTZELAI

Ahots Kooperatibista taldeko 15 bat lagunek agerraldia egin dute prentsaren aurrean.

# Euskara Planaren balorazio positiboa egin du Fagorrek

*Langileen %90i eragin die Euskara Plan horrek*

GOIENKARIA

**Fagor Etxetresna Elektrikoak Kooperatibak azken lau urteotako Euskara Planaren balorazioa egin du. Pozik daude emaitzekin. Prozesuak 1,67 milioi euroko aurrekontua izan du eta langileen %90i eragin die.**

"Arlo honetan euskal enpresa handien artean aurrerapenik nabarmenena izan dutenetakoa da Fagor". Horrelaxe dio Fagorko Euskara Planaren arduradunetako batek. Pozik daude, hortaz, 2002-2005 urtealdian plan honek izan duen emaitzarekin. Planaren helburua zen langileek, "kooperatibaren arlo guztietan, beren lana euskaraz zein erdaraz komunikatuz egin ahal izateko behar diren baldintzak lortzea".

Horretarako, "hizkuntzen errespetuan eta inguruarekiko konpromisoan oinarrituta", euskararen erabilera garatu dute, bai barne eta baita kanpo harremanetan ere. Emaitzei dagokienez, 2004ko datuei erreparatuz gero, hauxe da ondorioa: %26,3ko erabilera neurtu dute barne harremanetan eta %17koa kanpo harremanetan. Barne harremanetako dokumentazioari dagokionez, %37,2ko erabilera neurtu dute eta ahozko harremanei dagokienez, %18,7koa.

Clínica Oftalmológica RECALDE Oftalmologi Klinika
www.clinicarecalde.com
MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK
Plaza Barria, 2 - 2 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

# Bulegoa ireki du Arrasaten Guraso Bakarreko Familien Elkarteak

*Familien egitura erabat aldatzen ari zela ikusita sortu zuten elkartea*

IRATI AGIRREAZALDEGI/GOIATZ ARANA

**Asfamogik, Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkarteak, bulegoa ireki du Arrasaten. Handik, interesa duen edozein debagoiendarri eskainiko diote zerbitzua, kalitatez eta orain arte baino gertutasun handiagoarekin.**



GOIATZ ARANA

**Asfamogiko bi ordezkari, Itziar Mtnez. Apellaniz Diputazioko ordezkariarekin (eskuman).**

Aurrez ere eskaintzen zien Asfamogi elkarteak zerbitzua debagoiendarrei; baina, ireki berri duten bulegoari esker, ibarreko erabiltzaileek kalitatea eta gertutasuna irabaziko dituzte.

Orain dela 11 urte, familien egitura erabat aldatzen ari zela ikusita sortu zuten Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkartea. Gainera, azken urteetan, guraso bakarreko sendiak izugarri ugaritu direla esan zuten Asfamogikoek.

**ZERBITZUA GERTUAGO**

Elkarteak Donostiatik egin du lan orain arte. 11 urteren ostean, ordea, Gipuzkoan barrena zabaltzeko ahaleginari ekin dio, eta gurera egin du lehen jauzia;Arrasaten ireki du bulegoa. Gema Artola Asfamogiko lehendakariaren esanetan, "urte dezente daramatzagu elkartearen zerbitzuak eta programak Arrasaten eta bailara osoan eskaintzen. Bulego honekin, lortu nahi diren helburuak dira zerbitzua gerturatzea, eduki gehiago ematea eta eragina handitzea".

Elkarteak hainbat programa ditu guraso bakarreko familiei laguntzeko. Horietako bat lan eta gizarteratze programa da. "Lan munduko beharrak asetzen saiatzen gara orientazio, motibazio eta lana bilatzeko tekniken bidez. Gainera, heziketa eskaintzen diegu, batez ere geriatriaren eta pertsona nagusien zainketaren alorretan", esan zuen Gema Artolak.

Asfamogiren bulegoa Arrasateko pasealekuko hirugarren zenbakian dago. Egunero 10:00etatik 13:00etara eta astelehen eta martitzen arratsaldeetan 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik.

# Arrakastatsuak izan dira AHTren aurkako ekimenak

*Manifestazioa inoizko jendetsuenetarikoa izan da*

I.A.

**AHT Gelditu! Elkarlanak urrian barrena bi ekimen antolatu ditu AHTren aurkako mugimendua indartzeko: Aldarrikapen Gunea, batetik; eta *Euskal Y* proiektua geldiarazteko eskatuz Bilbon joan zen zapatuan egindako manifestazioa, bestetik.**

Bi ekimen horien helburua izan da indar berria ematea AHTren aurka dagoen mugimendu askotariko eta zabalari.

*Eusko Jaurlaritza: AHT gelditu! Inposaketarik ez!* lelopean Aldarrikapen Gunea ipini zuten bederatzi egunetan barrena Lakuan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean. Hantxe izan ziren, besteak beste, hainbat herri kaltetutako bizilagunak, Bergara eta Arrasatekoak kasu; gizarte mugimenduetako, erakunde politiko eta sindikaletako ordezkariak, AHTren aurkako asanbladak eta gazte erakundeak. Egun bakoitzean 50 lagun gutxienez.

"AHTren inposatze egitasmoak herritarren artean sortzen duen aurkako jarrera zabal eta askotarikoaren isla izan da Aldarrikapen Gunea", esan zuten ekimen horren antolatzaileek

**MANIFESTAZIOA BILBON**

Bestalde, Aldarrikapen Gunea egitasmoa amaitzeko, manifestazioa egin zuten joan zen domekan Bilbon.

Mila Elortza antolatzaileak esan digunez, "inoiz egin dugun manifestaziorik jendetsuenetarikoa izan da. Adin eta arlo askotako jendea izan ginen. Umeak ere tartean ziren, eta hori poztekoa da; eurak direlako etorkizunean hemen biziko direnak eta bizi kalitatearen alde egin behar dutenak ingurumena errespetatuz".

Hemendik aurrera lanean jarraituko dutela esan digu Mila Elortzak. "Une erabakigarrian gaude. Jaurlaritza Madrili presioa egiten ari zaio, aurrekontuak onartzeko euren botoa jaso nahi badute *Euskal Y* proiektua onar dezaten, eta hori ez da bidezkoa. Badira gizartean behar handiagoa duten alorrak".

*"Aldarrikapen Gunea AHTren aurkako jarrera zabal eta anitzaren isla izan da"*

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkacsteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

ANTZUOLA

## Umeendako antzerkia izango dugu bihar, zapatua, Olaranen

*Amama Pantxikaren altxor ezkutua!* antzezlana eskainiko digu Zenbat Gara elkarteak bihar, zapatua, 18:00etan, Olaran etxeko aretoan. Hain justu ere, 3 eta 11 urte bitarteko umeei dago bereziki zuzendua eta sarrera izango da bi euro.

Gizakien arteko lagunkidetasuna, gure nagusiekiko begirunea eta errespetua eta mota horretako kontzeptuak helarazi nahi dizkie antzezlanak umeei. Gainera, abesten eta dantzatzen dituzten 17 kantuek oso dibertigarri egiten dute saioa. /A.I.


E.M.

BERGARA

## Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko hitzarmena

Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak atzo sinatutako hitzarmenaren arabera, hutsik dauden etxebizitzak merkatuan eskuragarri izateko urratsak emango dituzte. Bergaran 700 etxebizitza inguru daude hutsik. Bizigune programa Arrasaten eta Eskoriatzan martxan dago eta Debagoien osora zabaltzea da asmoa. Helburua, esan bezala, ahalik eta etxebizitza huts gehien horien beharra dutenen eskura jartzea da. Etxebizitzen jabeei hainbat abantaila fiskal eskaintzen die programak. Era berean, etxebizitza errentan hartzeko zenbait baldintza bete behar dira. Suredesa izango da Bizigune programa kudeatuko duena. Argibideak, *www.etxebide.info* helbidean edo 900 251 251 telefonoan. /E.M.

ARETXABALETA

## Udaltzainek Urkulu zainduko dute, hara autorik sar ez dadin

Urkulu urtegi ingurua biziberritu egin gura du Aretxabaletako Udalak, eta hainbat proiektu ditu abian. Foru Aldundiak asfaltatu egin du ibilbidea, eta orain Udalak itxi egingo du, autoak aparkalekuetaraino bakarrik sar daitezen. Auzoetako bizilagunek bakarrik izango dute giltza jarritako piboteak zabaldu eta pasatzeko. Gainera, laster, udaltzainak ibiliko dira zaintzen.

Hori guztia egin ostean, Naturgintza fundazioarekin egindako proiektua jarriko dute abian, eta lehenengo, ur bazterrak txukundu egingo dituzte. /M.A.

ARAMAIO

## Bihar, zapatua, 30 bat artisau eta eskulangile izango dira goizean

Goiz polita antolatu dute biharko Aramaion, Erretiratuen Eguna ospatzeko. 10:30etik 14:30ak arte, azoka, musika kalean, hamarretakoak eta erretiratuen bazkaria izango dira. Horrek guztiak jende ugari erakarri ohi du Ibarrara.

**ARAMAIO ETA INGURUKOAK**

Azokari dagokionez, 30 bat saltoki izango dira; erdiak Aramaiokoak. Etxean egindako ogia, eztia, gazta... salduko dituzte; baita ere taloak, ortuko produktuak, egurrarekin landutakoak, kosmetikakoak eta gozoak, besteak beste. /U.M.

ESKORIATZA

## Tasen igoera, Marixol Iparragirre eta autobidea, osoko bilkuran

Atzo, eguena, ohiko osoko bilkura egin zuten. Zergen igoera aztertu zuten, Ogasun batzordeak eskatuta. Zerga gehienek izango dute KPIren igoera, hau da, %4. Baina salbuespen batzuk egin zituzten: uraren, zaborraren eta kirol instalazioen gainekoak, hain zuzen.

Elizateetako ordezkari Javier Villarrek eskatu zuen 2004an osoko bilkurak hartutako erabakiak berresteko. Horrez gain, Marixol Iparragirre presoaren egoera salatzeko mozioa aurkeztu zuten, Kontzejupek eskatuta. /I.B.

ARRASATE

## Oro har, KPIren araberako igoera izango dute Udal zergek: %4

Edozelan ere, salbuespenak izango dira eta horrek piztu zituen oposizioaren (PSE-EE eta PP) kritikak.

Hain zuzen ere, sei salbuespen izango dira: Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga (OHGZ) %8 igoko dute; ura, batez beste, %5 igoko dute; zaborra %17,7; kiroldegia (Aukea) %7; hilerriko errausketa zerbitzua %15 Arrasatekoendako eta %17 kanpokoendako; eta Laubideko parkingaren tarifa igoko dute 0,50etik 0,60ra.

Hobariei dagokienez, Bizigune programako etxebizitzek %25eko deskontua izango dute OHGZn (PPk proposatuta). Eguzki energia baliatzeko sistemak jartzen dituzten obra berrien eraikuntzan, berriz, %30eko deskontua izango dute Eraikuntza, Obra eta Instalazioen Gaineko Zergan. Eta irabazi asmo bako elkarteek %100eko deskontua izango dute Bide Publikoaren Erabilera Pribatuaren Gaineko Zergan (OVP).

**OPOSIZIOAREN KRITIKAK**

Ordenantzak bozkatzeko orduan, EAJk, EAk, EBk eta Aralarrek alde bozkatu zuen; PSE-EE abstenitu egin zen eta PPk kontra bozkatu zuten. Oro har, PSE-EEk eta PPk uste dute zaborraren, uraren eta OHGZren zergek gehiegizko igoera izango dutela. Eta PSE-EEk uste du errausketa zerbitzua baztertzailea dela Arrasatekoak ez direnendako, haiek gehiago ordaindu behar dutelako. PPk, berriz, uste du kanpokoen eta arrasatearren artean alde handiagoa egon beharko lukeela errausketaren prezioari dagokionez. /U.M.

**Zertzelada**

**Zenbait zergaren kasuan (uraren, zaborraren eta ondasun higiezinen gainekoa), PPk eta PSE-EEk uste dute gehiegizko igoera izango dutela**

OÑATI

## Zaborraren tasa %17,61 igoko dute datorren urtean, eta ura, %8,75

Zaborraren gaineko zerga %17, 61 igoko da datorren urtean, uraren ordainagiria %8,75 eta kirola egiteko txartel mankomunatua, berriz, %7. Udalak onartu ditu datorren urterako ordenantza fiskalak eta hiru arlo horietan nabarituko da igoera handiena.

Zaborraren tasa izango da gehien igoko dutena, Debagoieneko Mankomunitatearen proposamena jarraitzea onartu du-eta Udalak. Eskualde osoan zerbitzu beragatik kopuru bera ordaintzea da igoeraren arrazoietako bat.

Udalari ordaintzen zaizkion beste hainbat zerbitzuk %3,2ko igoera izango dute 2006an, joan den urteko KPIren igoera bera. /O.E.


O.E.

Zaborraren tasa da gehien igoko dena, %17,61.

ELGETA

## Maalako parkeko lanak urtarrilaren amaierara arte atzeratuko dituzte

Azaroaren amaierarako Maalako parkeko obrak bukatuta egongo zirela esan bazuten ere, Udalean baieztatu digute lanok atzeratu egingo direla; arkitektoak esan digu urtarrilaren amaierarako amaitzea dela euren asmoa. Maalan ipini duten aurrefabrikatutako 4,35 metroko hormak nahiko zeresan sortu du. Aurreikusitakoa baino altuagoa da. Alkateak onartu egin du ikusmenari eragiten diola, baina ahalegina egingo dutela inpaktua txikitzeko lorategiak ipiniz. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

## Gatzagan ehizarako 74 postu daude, eta horietako 18 dira herrikoendako

Aste barruan izan gara Gatzagako ehiztariekin, ehizaren gainean berba egiten. Gatzagarrek 18 ehizapostu dituzte eurendako, eta orain arteko uso pasea nahiko ona izan dela esan digute.

**INFORMAZIO GUTXI**

Hegaztien gripearen gainean ere galdetu diegu, Europako hainbat lekutan debekatu egin dutelako ehiza. Horren gainean informazio gutxi dagoela esan digute, eta ehiza denboraldia errotik mozteko interes txikia egongo dela. /X.U.

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira bidaltzen den gutunean. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 25 05 01
Faxa: 943 76 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Faxa

## Aupa Bitoriano!

Aurtengo Zinemaldian *Aupa Etxebeste!* filma estreinatu zen. Bertan izan ginenok minez ikusi genuen pelikulan agertzen den fikziozko errealitate horrek baduela antzik, dekoratuaz gain mamiari dagokionez ere, Bergarako herritarrok bizi dugun komedia handi honekin.

Saioa omenaldi bihurtu zen bat-batean; hain zuzen ere, gure herrietan zinema aretoen ateak zabalik mantentzeko ahaleginean ari direnei, eta guk lotsa sentitu genuen Bergarako egoera gogoan: Novedades areto zaharraren heriotza bazetorrela ikusita, aldez aurretik martxan egon izan beharko zukeen erabilera anitzeko aretoa. Hutsune horrek lotsatu gintuen.

Horretan geundela, berriz ere errealitateak fikzioa gainditzeko ahalegina egin zuen eta gure alkatea (Etxebeste ez, Bitoriano) berandu iritsi zen estreinaldira eta aretoko ateak itxita zeudenez ezin izan zuen barruan gertatutako guztia ikusi. Ondoren bai, ikusi genuen, jakina, bostekoak partitzen, eta baita pelikularen produkzio-etxeak antolatutako jaian ere. A ze lotsa!

Uztailaren 10ean, prentsaren bidez, jakin genuen Zabalotegiko lokalean 152 lagunentzako erabilera anitzeko areto bat egokitzeko lanak egin eta 2006 urte hasierarako bertan zine, antzerki, hitzaldi eta antzerakoez gozatzeko aukera izango dugula. Zabalotegik hautsa pilatzen jarraitzen du, ez da oraindik inongo lanekin hasi: Bergarako herriaren kulturarako azpiegitura beharrei aurre egiteko beharrezkoa izan arren, nahikoa izango ez den areto berri honen irekiera berriz ere berandu iritsiko da. Alkatea bezala.

Badirudi gabezia izango dugula bidelagun luzaroan. Nora begira ote daude gure agintariak? Zer falta dute? Akaso motibazioa? Gaitasuna? Aurreikusteko abilezia? Intentzioa? Gogoa?

Herriko kaleetan kultura umezurtz ikusita, behintzat, egoera luza ez zedin taldetxo bat antolatu genuen eta egoerari irtenbidea ematen saiatu ginen. Uda hasieran talde honetako ordezkariak Udaleko kultura ordezkariekin bildu ginen. Horiek, erabaki instituzionalik ezean, zenbait irtenbide proposatu zizkiguten. Irtenbide horiek, dirudienez, ez ditu alkateak onartu eta bertan behera geratu dira. Bileran bertan, besteak beste, garbi utzi ziguten alkateak berak ez zuela entzun ere egin nahi Novedades aretoa mantentzeari buruzko inongo proposamenik. Etxebesteren herrian aretorik ez!

Eta orain *Aupa Etxebeste!* Aupa izan duen arrakasta, aupa gure herriak (baita Udalak ere) pelikula egiterakoan egindako ahalegina. Aupa... eta herrian ezin pelikula ikusi? Prozesioan autoak hartu eta hor jardun dugu bergararrak agurtzen Donostia, Gasteiz, Eibar, Oñati edo Arrasateko zinema aretoetan! Inguruko herrietako zinemak bete ditugu, beste behin lotsatu gara "Bergaran ez daukazue zinerik ala?" entzun behar izan dugunean, eta koloreak ere atera zizkiguten oñatiarrek jendearen eskaera ikusita emanaldiak egun gehiagoz luzatzea erabaki zutenean. Bergaran urriaren 28 eta 29an ikusi ahal izango da, Udal Pilotalekuan. Leku aldrebesean emateaz gain, berandu: bergarar zinezale gehienok kanpoan ikusi dugu dagoeneko. Oraingoan ere itxura besterik ez, lotsak nabarmenegi ez erakustearren atondutako adabakizko soineko faltsua, zurikeriaz josia, epe motzak janda, fikziozkoa (eta ez zinematografikoa). Berriz ere, a ze lotsa!

ASIER ALTUNA, ITSASO AZKARATE, VIRGINIA IMAZ, MAITE ARISTEGI, HILARIO MANZANEDO, JESÚS MARI KALBOETXEAGA ETA BESTE 3.000 BERGARAR
Bergara

## Borrokaz aske biziz, independentzia

Zenbat aldiz entzun eta irakurri dugu "Euskal gazteriaren egoera" esaldia. Baina, zein informazio eta baliabide gutxi dugun gazteok gure egoera ezagutzeko. Zergatik ezkutatzen zaigu informazio hori? Gazteoi galdetu ere egin gabe, gazteoi buruzko azterketak iristen zaizkigu askotan. Zenbat "aditu", zenbat intelektual gure izenean aritzen direnak, gu ezagutu gabe, guri buruzko milaka eta milaka orrialde idazten.

Esan daiteke gaixotasun baten gisara tratatzen gaituztela; gazteok inkontzienteak, drogazaleak, alperrak, arazo sortzaileak... baikara askorentzat. Gure egoeraren kontzientzia har dezagun beldur dira, horregatik nahi duten bezala maneiatzen dute gazteoi buruzko informazioa eta, gainera, gure iritzia baztertzen dute.

Zailtasunak zailtasun, gazteok bizi dugun egoeraren jabe izatea hil ala bizikoa zaigu.

Arazoa ez da zurea, nirea edo lagunarena. Hori sinistea da botereak bilatzen duen asimilaziorako pentsamendua: "Atxilotua izan nahi ez baduzu ondo portatu, bortxatua izan nahi ez baduzu ez probokatu edo etxebizitza bat izan nahi baduzu lana egiteko bizi eta hipoteka ordaintzeko eman zure bizitza".

Espainiar eta Frantziar estatuek, gure herria zatitu eta ukatzen dute eta hori mantentzeko errepresioa jasan arazten digute mugimendu, herritar eta batez ere gazteoi. Espainiar eta Frantziar egin gaituzte, Guardia Zibila ekarri dute, epaitegi inkisidoreak... Hau guztia zertarako? Soilik Euskal Herria eta bere herritarrak, euskal gazteak menperatuak eta zigortuak izateko.

Hau ikusita, independentzia euskal gazteontzat inoiz baino beharrezkoago eta inoiz baino egingarriagoa da. Independentzia hitzak zentzu osoa du gazteongan eta ez dugu zertan egun zehatz baten zain egon behar, independentzia borrokan biziz, askatasun eremuak irabaziz eta lapurtu dizkiguten eskubideak guk geuk hartuz egingo baitugu egunero.

Gazteok aldaketa independentziarantz joan dadin indarra gara eta soilik Euskal Herrian, Euskal Herriko indarren artean eraiki daiteke etorkizun duin eta askea euskal gazte eta herritarrontzat.

Gazte izateagatik izaten gara kolpatuak eta gazte izate horretatik, antolaturik egingo diogu aurre eraso osoari, osotasunez guztion eskutik. Antolatu eta borrokatuz, epaiketa eta euro-aginduen gainetik, Segi-k independentzia eta sozialismoaren bideari tinko eutsi dio eta eutsiko dio.

Horregatik deia luzatzen dugu gazte orok zapatu honetan, hilaren 29an, Iruñean egingo den Kalejiran parte hartzeko (autobuserako txartelak salgai daude Arrasateko Iratin, Aretxabaletako Urbaltzen eta Bergarako Arranon. Independentziaz bizitzeko eskubidea dugulako, borrokaz aske biziz, independentzia!

DEBAGOIENEKO SEGI
Debagoiena

# Hemeroteka

## 'Sketches of E.H.'

*Wazemank* saioko esketx batean, Julian Iantzi (Anjel Alkain) duelo edo norgehiagoka zuzentzen ari da Tiberiades lakuaren inguruan. Jesus eta Judas adiskideen artean dugu lehia. Lakua nork azkarrago zeharkatuko:

- Zu, Jesus Prest? Galdetzen dio Iantzi-Alkain aurkezleak, eta Jesusek baietz erantzuten du buruaz. Ondotik: - Zu, Judas Priest?

*Wazemank* saioko txiste guztiak ezin dituzte ikusle guztiek ulertu, bistan da. Txiste generazionalak edota pop kulturari dagozkionak ere nolabait esan botatzen dituztelako bertan. Beste ikusle batzuei, ordea, nekezago egingo zaie kostunbrismoaren inguruko esketxak ulertzea, Agirretarrak zein atsoen bitartez hain modu bortitzean gauzaturik ageri direnak.

Zera bururatzen zait halere: tarteko esparrua dugu nagusi *Wazemank* saioan. Bertako pertsonaia batzuek handik eta hemendik baleukate legez. Esan nahi baita: "euskal izaeran" ongi txertaturiko psikologia erakusten dute momentuz, baina transitoan ere ari zaizkigu. Norantz? Badira moduak eta moduak erantzuna emateko. Des-euskaldun-izazio-rantz (eman dezagun hitza xehe-xehe eginda) ez, adibidez. Euren erdarakada guztiekin ere, *Wazemank* saioko pertsonaien euskalduntasuna hizkuntzari dagokionez eredugarria baita (tira, dudatxo bat: hika-noka nola egiten duten zoragarria zait, noski, baina ez dut uste Euzkitze batek, adibidez, "dittukela" forma inoiz erabiliko lukeenik. "Dittuk" bai, baina ondorioz "direla"; "nauk" bai, baina "naukela" ez, "naizela" baizik). Ibarretxe lehendakaria ageri da beste esketx gogoangarri batean. Belarra debekatu zenetik kontsumoak gora egin duenez gazteen artean, ideia jeniala izan du Lehendakariak: liburuak debekatzea irakurzaletasuna sustatzeko.

Ondorioz sortu zen esketxa nola definitu, lagunok, Euskal pop kultura? *Wazemank* saioak erakusten dituen euskal-eremuetako bat horrela definituz gero. Agian historian lehen aldiz irakurri dituzue hiru hitz horiek elkarren segidan idatzita. Hitzok idaztean nik bezalaxe.

FERMIN ETXEGOIEN
'Berria'. 2005-10-27

## Blog-blog-blog

(...)

Edonor izan daiteke blogari, edonork irakur ditzake blogak, edonork erantzun diezaieke blogarien iritziei. Zeinen jatorra, zeinen demokratikoa, zeinen guai den blogaritza! (...)

GERARDO MARKULETA
*Asteleheneko Goienkaria*. 2005-10-24

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta Itxaso Berezibar
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## ARAZORIK EZ PERRETXIKOAK NON HARTU DITUZTEN ESATEKO

Argazkikoak dira Noeli, Txelo eta Maritxu, eta esan gabe doa ondo asmatu dutela perretxikoak bilatzeko lekua aukeratzerakoan. Hirurak ibili ei ziren orain dela bi aste jo eta sua, batu eta batu. Dakigunez, baina, Maritxu da perretxikoak ondo ezagutzen dituena. Joan den astean ere argitaratu genuen horrelako erretratu bat, baina orduan, argazkia bidali zigunak ez zigun argitu onddoak non batu zituzten: "Txantxikuarrei lapurtutakoak", izan zen aurreratu zigun guztia. Oraingoan, baina, hirukote horrek ez du inolako arazorik izan perretxikoak non hartu dituzten esateko: Urbian hartutakoak dira. Baliteke, baina, hori argitu dutenerako Urbian ez egotea onddo gehiago. Hego-haize honekin...




## LEHENENGO AFARIA IZATEKO KOADRILA POLITA ELKARTU ZEN ZAPATUAN, BITTORI ERRETEGIAN

Argazkikoek San Viatorren ikasi zuten, baina badira urte batzuk ikastetxe horretan ikasle izateari utzi ziotela, 1980an jaiotakoak diraeta. Eta, sekula ere klaseko afaririk egin barik, oraingo asteburuan egin dute lehena. Esan digutenez, eskolan 22-24 ikasle ziren, eta afarian 16 lagun elkartu ziren: "Lehena izateko ez dago batere txarto, ez genuen uste horrenbeste elkartuko ginenik". Horrelakoetan ohi den moduan, sasoi hartako kontuak gainbegiratzen ibili ziren, eta gau osoa behar izan zuten horretarako, euretako asko goizaldean erretiratu ziren-eta. Hurrengo afarirako ez dute hitzordurik ipini, baina argi daukate berriro ere elkartuko direla. Zera esan gura dute, gainera: "ea oraingoan animatu ez direnak hurrengora etortzea daukaten!".



## GIPUZKOARI ITZULIA EMANDA, HURRENGO IBILALDIAK PRESTATZEN IBILIKO DA NORBAIT...

Besaidek antolatutako irteeren artean, arrakasta handia izan dute Gipuzkoako Birako etapek. Ia bi urte behar izan dituzte Gipuzkoari itzulia emateko, baina irteera horiek lasai egin dituzte, bakoitza azkena izango balitz bezala gozatuz. Domekan iritsi zen, baina, eguna: itzuliaren amaiera. Eta, jai ederra antolatu zuten domekan. Hasteko, Besaidera igo, monumentuaren ondoan familia erretratua egin, eta Santa Luziara joan ziren, Sara jatetxeraino jaitsi, eta bertan bazkaltzeko. Baba jan ederrarekin indarrak errekuperatu, eta kantuan ibili ziren, trikitilariek lagunduta. Eta, Gipuzkoako Bira antolatzen ibili den Imanol Expositori omenaldia egin zioten, egin duen lanagatik. Hori amaitu orduko, baina, Besaidekoek esan digute dagoeneko hainbat ideia dituztela esku artean. Horietako bat da Noaindik Azpeitira doan GR ibilbidea egitea, eta Gipuzkoari itzulia eman dioten moduan, orain Bizkairi ematea. Ez dira aspertuko.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

# Azaroan Gazte Asteburuak egingo ditu Gazteen Kontseiluak



ARRASATE PRESS

Irudian, Gazte Astearen aurkezpena egin zutenean, 2004an.

I.B.

**Arrasateko Gazteen Kontseilua hainbat ekitaldi antolatzen dabil azaroko asteburuetarako. Helburua da gazteendako kultura eskaintza egitea, eta kontseilua aditzera ematea. Egitaraua zehazten dabiltza.**

Azaroaren 12an, 19an eta 26an eta abenduaren 17an egingo dituzte Gazte Asteburuetako ekintzak. ARRASATE PRESSen ekimen hori urriko iragarri genuen, baina azaroan izango da. Arrasateko Gazteen Kontseiluak aditzera eman du ekimen horren helburua dela "gazteei beste kultura eskaintza bat egitea, asteburuetan beste gauza mota batzuk egin daitezela erakutsi eta kontseilua aditzera ematea".

Oraindik egitaraua guztiz zehaztu barik daukate, eta herriko hainbat elkarterekin harremanetan dabiltza, esku-hartzea eta eskaintza ere eta handiagoa izan daitezen.

Besteak beste, umeei zuzendutako egun bat egingo dute, puzgarri, pailazo, tailer eta bestelakoekin; beste egun baten kale animaziozko hainbat talde batuko dituzte; bertsoek, trikitixak eta gastronomiak ere leku garrantzitsua izango dute; eta kirolak ere landu gura dituzte. Horrez guztiaz gain, kontzertu erraldoi bat egiteko asmoa dute. Udalaren babesa jaso dute ekintza horiek egiteko. Laster emango dute aditzera egitarau osoa.

#### ASTEBURUAK INDARTU

Arrasateko Gazteen Kontseilua herriko hainbat taldek osatzen dute: Txatxilipurdi, AED, AGAKO (gaztetxeko batzarra), Besaide, Gizaizpi Alai... 2003an, logotipo lehiaketa egin zuten, eta bi aukeratu zituzten, bata umeena eta bestea gazteena.

Iaz, Gazte Astea antolatu zuten eta arrakasta izan zuen. Aurten, berriz, erabaki dute ekintzak aste barruan egin beharrean asteburuetan egitea. "Gazte asko aste barruan lanpetuta ibiltzen dira eskolaz kanpoko ekintzekin. Horregatik, asteburuetan egitea adostu genuen".

**MUSIKA/** Señor No eta Lobo Electrico taldeen kontzertua

# Punta-puntako rock-and-roll taldeak 3.60 aretoan

IKER BARANDIARAN

**Bihar, zapatua, asperdura kentzeko moduko kontzertua egingo dute 3.60 aretoan. Europako biratik etorri berri den Señor No talde donostiarra, eta aspaldian rock-and-rollari freskotasuna eman dion Lobo Electrico talde tolosarra izango dira taula gainean.**



LOBO ELECTRICO

Tolosako Lobo Eléctrico-k ikuskizun bitxia emango du.

Irailean egitekoa zen bi talde horien kontzertua gaztetxean. Zoritxarrez, bi taldeetako bateria jotzaile Guantxe gaixotu egin zen eta bertan behera utzi zuten kontzertua. Azkenean, 3.60 aretoan egingo dute asteburu honetan.

Orain dela hilabete batzuk Donostiako Señor No taldean hainbat taldekide aldatu zituzten, baina dagoeneko taldea indarberrituta dago. Are gehiago, irailean *Señor Sí* izeneko disko akustikoa kaleratu zuten, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin, eta Europan barrena 15 eguneko bira egin berri dute: Alemanian, Austrian eta Holandan ibili dira kontzertuak ematen.

"Urtarrilera arte agenda betebeteta daukagu, eta Ingalaterrara eta Belgikara jotzera joateko eskaintzak egin dizkigute", azaldu zigun taldeko abeslari Xabi Garrek. Orain, jotzeaz gain, abesti berriak idazten dabiltza, eta aurreratu ziguten 2006an beste disko bat kaleratuko dutela. Arrasateko kontzertua elektrikoa izango dela aditzera eman ziguten. "Emanaldi akustiko gutxi batzuk egiteko asmoa daukagu, baina lekuak hala eskatzen duenean".

#### LOBO ELECTRICO: GLAMA ETA DIBERTSIOA

Tolosako Lobo Electrico taldea Señor No baino ezezagunagoa da gure artean. 2000. urtean hasi ziren, baina poliki-poliki ibilbide oparoa egin dute. Tolosako Bonberenea gaztetxeak kaleratutako bilduman kantu bat sartu zuten. Orain dela bi urte, *El lado salvaje del corazón* izeneko singlea kaleratu zuten, eta iaz *Has visto al Lobo Eléctrico* diskoa.

Taldeak gero eta harrera hobea dauka, eta diskoa ondo saldu dute. Are gehiago, Euskal Herrian ehunka kontzertu egin dituzte, Espainian ibili dira eta iaz Japoniara joan ziren. "Egia esanda, dezente jo dugu entseatzeko lokal iraunkorrik ez daukan talde bat izateko", azaldu zigun baxu jotzaile Jorgek.

Euren musika zuzena da, artifizio bakoa. "Kantuak nahiko sinpleak dira eta erritmoak, errazak. Taldearen xarma zuzenekoetan dago". Eta hala uste dute askok. Abeslari Santi showman hutsa da, ateraldi oso bitxiak dauzka eta taldeak zelanbaiteko glam kutsua dauka. Are gehiago, zuzenekoetan ahal duten guztia ematen dute, eta ikusleak *kutsatu* egiten dituzte. Askotan, euren kontzertuak jaia bilakatzen dira, eta hori da eurek gura dutena.

> *Señor No taldeak Europan barrena bira egin berri du, eta disko akustikoa kaleratu du*


## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /arregi /atai /azkarate /joseba /BZ-sistemas
/gallastegi /garaia /guztizeder /korozabaleta /lilura /multiopticas
/ohiak /okipark /vitoria /pando /udalatx /udalaitz




#86
DAGOENEKO ABIAN DIRA #86. ETA #79. PROIEKTUAK:
AGORROSINGO ETA MUSAKOLAKO
KIROL EREMU BERRIAK.
Inbertsioa: 3.600.000 euro
Debagoienan kirol guztia guztion esku jartzen duten proiektuak. Dagoeneko proiektutik haratago dauden proiektuak. Aparteko Inbertsio Planaren barruan aurrera doazen errealitateak dira. Elgetako saihesbidea eta autopista berria, edo Arantzazuko Gandiaga Zentroa eta Bergarako antzoki proiektu berria bezalaxe... Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.
Aparteko Inbertsio Plana.
Debagoienan ere bai.
Aparteko Inbertsio plana 2004-2007
Plan extraordinario de inversiones 2004-2007
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
#79

## EZETZASMATU



IKER BARANDIARAN

Non dago argazkian ikusten duzuen iturri hori?
Arrastoa: antzinako iturria da; lehen ezagun samarra zen, baina orain ez dabil.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..........

IZEN-DEITURAK..........

TELEFONOA ..........

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

**Maria Fontaneda galletak**
**800gramoko kaxa**

**1,44€ 240 pta.**

**Super BMn beti eskaintzarik onenak!**

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**ANDONI LARRINAGA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Andoni!
Galderen erantzun zuzena:
**Ferrerias kaleko plazatxoan.**

## ERRETRATUZAHARRA

# ATBko hainbat langile eta kolaboratzaile




GOITB da gaur egun gure ibarreko telebista. Baina ATBtik eratorritakoa da GOITB, Arrasate Telebistatik. Jende askok parte hartu zuen gure herriko telebista hartan; lanean, laguntzen eta gonbidatu moduan. Horren adierazle da oraingo asteko argazkia.

Ikusten duzuen moduan, ospakizun bat egiten dabiltza. Hain justu ere, ATBko *Larrugorritan* programa grabatzen bukatu zutela ospatzen dabiltza. Gai baten gaineko hainbat ikuspuntu batzen zituzten programa hartan: "Uda batean grabatu genituen programa guztiak, uztailean". Hala kontatu digu *Larrugorritan* saioko egileetako batek, Betirtze Iñurritegik. Halaber, kontatu digu Arrasate Telebistaren eraikin zaharrean hasi zirela programa hura grabatzen. Ospitale zaharrean zegoen egoitza hura. Horrez gain, 90eko hamarkada zela ere gogoan du gure berriemaileak, eta ATBn laguntzaile zebiltzala ere bai: "Bost urte baino gehiagoan ibili ginen; 16 urterekin-edo hasi ginen". Urte haietan, *Larrugorritan* saioaz gainera, bestelako programa batzuetan laguntzen ibili zirela esan digu, eta oroitzapen onak gordetzen dituela.

Argazkiari dagokionez, honako hauek azaltzen dira, ezkerretik eskumara: Ruth Osinaga, Eider Amondarain, Maider Egues, ezezaguna, Oihana Ezkurra, Virginia Herrarte, Unai Iparragirre, Aitor Mendizabal izan daiteke, Agustin Olaizola eta Patxi Agirrebeña. Edozelan ere, berez *Larrugorritan* saioa egiten zuten Unai Iparragirrek, Betirtze Iñurritegik, Agustin Olaizolak eta Aitor Mendizabalek. Gainerakoak ATBko langile eta kolaboratzaileak ziren; asko ezagun egin ziren gero.

**Argazkia**: ATB.
**Informazioa**: Betirtze Iñurritegi, Monika Montero eta Iker Barandiaran.
**Urtea**: 90eko hamarkada.

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



BERRIKUNTZAK:

- **PROGRAMAZIOA**
  Etenik gabeko programazioa
  (13:15 / 00:15)
- **INFORMATIBOAK**
  Orduoro eta inor baino lehenago
  (laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa




Goitb
Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 28a — 399. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94


## Urkulu urtegi ingurua zaintzen hasiko dira udaltzainak egunotan

MIRARI ALTUBE

**Bukatu ditu Foru Aldundiak Urkuluko lanak. Asfaltatu eta txukundu egin du, eta orain Udalaren lana hasiko da. Egunotan jarriko dituzte udaltzainak automobilen joan-etorriak zaintzen. Izan ere, aparkalekuetan bakarrik utz daitezke autoak.**

Urkulu ingurua biziberritzeko asmoa dauka Udalak eta Foru Aldundiak egindako lanak lehen pausoa izan dira.

**UDALTZAINAK INFORMATZEN**

Urtegiaren inguruko ibilbide osoa dago asfaltatuta, zakarrontzi eta eserlekuak jarri dituzte eta laster kirola egiteko guneak ezarriko dituzte. Udalak, orain, murriztu egingo du automobilen sarrera: auzoetako bizilagunak eta langileak bakarrik ibili ahal izango dira. Gainerako guztiek izendatutako aparkalekuetan utzi beharko dute autoa.

Egunotan hasiko dira udaltzainak autoen joan-etorriak zaintzen eta informatzen. Oraindik ez dute isunik jarriko; izan ere, ur araztegi zaharra bota egin behar dute eta ibilbidea ez da itxita egongo. Bizilagunek, gainera, oraindik ez daukate baimenduta daudela esaten duen txartelik.

**NATURGINTZA FUNDAZIOAREKIN**

Naturgintza fundazioarekin batera dabil lanean Udala. Horretarako lantaldea osatu zuten, eta hantxe elkartu ziren: Foru Aldundiko Parke Naturalen ordezkaria, Landa Garapeneko ordezkaria, Mankomunitateko Turismo teknikaria eta Naturgintza fundazioko eta Udaleko ordezkariak. Talde horrek Urkulu biziberritzeko lau lan ildo ezarri zituen: ur bazterrak txukundu; Urkulu eta Arantzazu arteko erromes bidea garatu; pinudien ordez bertako zuhaitzak landatu; eta paisaia mantentzeko beharrezko baliabideak eman baserritarrei.

Lehenengo lan ildoa garatzen hasiko dira laster, hau da, ur bazterrak txukuntzen. Proiektu zehatza egin du Naturgintzak eta txostena aurkeztu Udalari. Hark, berriz, 239 mila euro gorde zituen irailaren 12an egindako osoko bilkuran lehenengo lan horiek egiteko. Hasieran aurreikusita ez egon arren, hegaztiak behatzeko lekua jartzea proposatu zuen Naturgintza fundazioak, baita ur azpian geratu ziren baserriak gogorarazteko oroitarria ere.



M.A.

**Ur bazterrak txukundu, eta hegaztien behatokia eta oroitarria jarriko dituzte.**

**DIRULAGUNTZAK**

Urkulu biziberritzeko egin beharreko lana handia dela ikusita, laguntza eskatu du Udalak. Hala, Foru Aldundiak bere gain hartu ditu lan batzuk, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailetik 99 mila euro inguru jasoko ditu. Euskadiko Kutxak ere 30 mila euro inguru emango dizkio.

## Deklamazio saria irabazi zutenek bidaia egin dute

M.A.

***Abelino Barriola deklamazio saria*n parte hartu eta saria jaso zuten Kurtzebarri eskolako hainbat ikasleek. Joan zen astean saria jasotzea tokatu zitzaien eta bidaian izan dira Nafarroa aldean eta Iparraldean. Beste eskola batzuetako neska-mutilak ezagututa eta ederto pasatuta itzuli dira.**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtero antolatzen du *Abelino Barriola deklamazio saria*. Ikasleei euskaraz erraztasunez eta zuzen irakurtzen irakasteko egiten diren ahaleginei ematen die saria. Lehen Hezkuntzako 3. mailan hasi eta DBHko 2. maila bitarteko ikasleei zuzendua dago. Zazpi ikasgela onenek jasotzen dute saria, Ipar Euskal Herria ezagutzeko lau eguneko bidaia.

**LAGUN BERRIAK**

Kurtzebarri eskolako hainbat ikasgela aurkeztu ziren iazko ikasturtean, eta merezitako saria jaso zuten Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. mailako hainbat ikaslek. Hain zuzen, aurreko astean joan ziren bidaian Nafarroa eta Iparraldera eta oroitzapen gozoekin itzuli dira guztiak. Kurtzebarri eskolakoekin batera Alegia, Ondarroa eta Bilboko neska-mutikoak ibili dira bidaian. Hortaz, lagun berriak egin eta beste euskalki batzuk ezagutzeko paregabeko aukera izan dute. Gainera, rafting, tirolina eta izotz gaineko irristaketa egin dituzte beste kirol batzuekin batera.



KURTZEBARRI ESKOLA

**Nafarroan eta Iparraldean egon den Kurtzebarri eskolako ikasle taldetxoa.**


EZKUTU TABERNA
ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA
Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

ANDRA MARI Aholkularitza
- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala
Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Jauregi Okindegia
Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

MAPFRE Aseguroak
Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

## FARMAZIENTXANDA

**ZAPATUA, 29**
FRAILE.Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

**DOMEKA, 30**
FRAILE.Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

## TELEFONOAK

**OROKORRAK**

| | |
|---|---|
| Almen | 943 71 49 07 |
| ARETXAGAZETA | 943 79 86 21 |
| Faxa | 943 77 18 54 |
| Basotxo | 943 77 09 81 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 18 62 |
| Industrialdea | 943 79 62 80 |
| Institutua | 943 79 79 00 |
| Kirol etxea | 943 71 26 28 |
| Kultura etxea | 943 71 10 27 |
| Gazteria saila | 943 71 10 27 |
| Kurtzebarri Eskola | 943 79 00 49 |
| Kurtzebarri BHI | 943 79 57 40 |
| KZGunea | 934 79 94 44 |
| Liburutegia | 943 71 18 62 |
| Loramendi EE | 943 77 09 70 |
| Ludoteka | 943 79 05 81 |
| Mankomunitatea | 943 79 30 90 |
| Murrukixo ME | 943 79 93 74 |
| Musika Eskola | 943 79 36 50 |
| Osasun etxea | 943 71 19 59 |
| Otalora | 943 71 24 06 |
| Parrokia (bulegoa) | 943 79 18 42 |
| Pausoka Haur Eskola | 943 77 03 77 |
| Postetxea | 943 79 28 31 |
| Basabeazpi Ikastola | 943 71 21 18 |
| Taxi geltokia | 943 77 12 64 |
| Udal Bulegoak | 943 71 18 62 |
| Udaltzaingoa | 943 71 18 63 |
| Urats Gain | 943 79 99 11 |

**UDALTZAINGOA**

| | |
|---|---|
| Arrasate | 943 79 14 39 |

**LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| SOS Deiak | 112 |
| Eskualde Ospitalea | 943 03 53 00 |
| Ertzaintza | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Suhiltzaileak (Oñati) | 943 78 28 00 |

## MEZAK

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN:**
**LARRINO**
Domeketan: 12:30.
**MENDIOLA**
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)
**GELLAO**
Domeketan: 11:30.

## INTERNET

# 714 erabiltzaile ditu herriko KZguneak, eta 120 berriak dira

M.A.

**Markole auzoan dagoen KZguneak 714 erabiltzaile ditu, horietatik 120 berriak, eta 110 lagunek egin dituzte ikastaroak. Dagoeneko antolatu dituzte azarokoak.**

Interneten eguna ospatu zuten martitzenean mundu guztian, baita gurean ere. Gero eta erabiltzaile gehiago ditu KZguneak eta askok egin dituzte ikastaroak.

**EMAKUME LANGILEAK**

Hilabete baten goizez eta hurrengoan arratsaldez zabaltzen dute Aretxabaletako KZgunea. Hala, azaroan, 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta abenduan, 09:00etatik 13:00etara.

Aitor Madrid arduradunaren esanetan, goizez zabaltzerakoan batez beste 12 lagun joaten da, eta arratsaldeetan 20tik gora. Izena emandako erabiltzaileak dagoeneko 714 dira, horietatik 120 berriak, eta aurten ikastaroak egin dituztenak 110 inguru: 70ek oinarrizkoa eta 40k aurreratua. 35-45 urte bitarteko emakume langilea da ikastaroetara joan ohi dena, eta erretiratuen artean gizonezkoak dira nagusi.

*Irudi digitalen tratamenduaren gaineko ikastaroa antolatu dute hilaren 15etik 18ra*

**AZAROKO IKASTAROAK**

Hainbat ikastaro gertatu dituzte azarorako. Egunean bertan egitekoak dira batzuk: posta elektronikoa erabiltzen ikasteko hilaren 2an, ardoaren gainekoa hilaren 4an, etxetik erosten ikasteko 8an, postal bat bidaltzeko 10ean, egunkaria Internet bidez irakurtzeko hilaren 23an, KZguneko foroen gainekoa 25ean, eta finantzen gainekoa 29an eta 30ean.

Interneten oinarrizko ikastaro bi ere egingo dituzte: azaroaren 7tik 18ra bitartean lehenengoa eta 21etik abenduaren 2ra bitartean bigarrena. Gainera, irudi digitalen tratamenduaren gainekoa antolatu dute: azaroaren 15ean eta 16an lehenengo zatia eta 17an eta 18an, bigarrena.

Hortaz, zerbait ikasi gura duenak badu non aukeratu.



ARTXIBOA

Dagoeneko 110 herritarrek egin dituzte KZguneak antolatutako ikastaroak.



## Herriko artistek bikain jardun zuten

Joan zen eguenean aurkeztu zuen Hiruatx elkarteak Ekuatore Ginean hasi berri duen proiektua. Oilaskoak hazi eta saltzeko kooperatibak jarri gura ditu abian eta horretarako aretxabaletarren laguntza behar du. Hori guztia eta gehiago azaldu zuten Hiruatxeko kideek herriko hainbat artistaren laguntzarekin: Beñat Zamalloa, Akordeoi Orkestrako kideak, Leizarra Musika Eskolako trikitilariak eta Aretxabaleta Abesbatza. Bikain jardun zuten guztiek eta hurreratutako herritarrek oso gustura egin zuten alde. / M.A.

## LABUR

### Ur, estolderia eta zaborraren hirugarren hiruhilabeteko zergak ordaintzeko epea

Hiruhilabetean behin kobratzen ditu Udalak ur, estolderia eta zaborraren gaineko zergak. Hala, hirugarren hiruhilabetekoa ordaintzeko garaia da, eta horixe adierazten zuen urriaren 24ko GAOk. Herritar gehienei bankuko kontu korrontetik pasatuko die kobratzea Udalak eta horren berri jasoko dute egunotan. Baina badaude eskuan ordaintzea gurago duten batzuk. Horiek 60 eguneko epea izango dute eta udaletxeko bulegoetan ordaindu behar dute. Aipatutako epean ez badituzte ordaintzen, Udalak nahi eta nahi ez kobratuko die eta errekargua, berandu ordaintzearren ezarritako interesak eta sor daitezkeen beste kostu batzuk gaineratuko dizkie. Zergarekin ados ez dauden herritarrek errekurtsoa aurkez dezakete udaletxeko harreran.

### Sinadurak batzeko mahaia jarri zuen atzo, eguena, 18/98+ lantaldeak Mitarte kalean

18/98+ lantaldeak sinadurak batu zituen atzo arratsaldean Mitarte kalean. Eskubide zibil eta politikoen aldarrikapena egin eta eskubide horien alde herritarren atxikimendua lortzea zuen helburu ekimenak. Urriaren 15ean abiatu zen Kaiera Ibiltaria, herritarren ideiak, iritziak eta ekarpenak batzeko, eta azaroaren 12a bitartean herriz herri ibiliko da. Hain zuzen, 18/98 auziko epaiketa gero eta hurbilago dago, azaroaren 14an has daitekeelako ahozko saioa.

Orly
aretxabaleta
Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

IRIARTE
Umeen denda
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

## ELKARRIZKETA

**VICENTE CALZON**/LEHENENGO MAILAKO KADETEEN ENTRENATZAILEA

# *"Hasi besterik ez dugu egin denboraldia, eta geuk ere hobe dezakegu oraindik"*

M.A.

Lehenengo mailako kadeteak entrenatzen ditu; eta zela entrenatu, gainera! Taldea lehenengo dago sailkapenean partidu guztiak irabazita, eta bigarrenari bost puntuko aldea ateratzen dio. Sei partidutan 30 gol sartu dituzte.



M.A.

Aurten itzuli da entrenatzaile lanetara Vicente eta ezin hobeto dabil bere taldea.

**Denboraldia aurrera doa, sei partidu jokatu dituzue eta zeuek zarete nagusi.**

Momentuz bai, halaxe da; baina denboraldia luzea izaten da eta asko falta da oraindik.

**Taldea oso motibatuta dago?**

Bai, pozik dabiltza, eta ondo ibiliz gero emaitzek lagundu egiten dute. Lotuta daudela esango nuke ondo ibiltzea eta emaitzak, eta gainera, batak bestea dakar.

**Bigarren sailkatuarekin bost puntuko aldea duzue, ez duzue partidurik galdu, eta gainera 30 gol egin dizkiezue aurkariei. Beste taldeen gainetik zaudete?**

Ez nuke halakorik esango. Bi partidutan sartu ditugu golak, gainerakoak nahiko justu irabazi ditugu: 2-3, 1-0... Talde onak daude; Ondarroako Aurrera, esaterako. Elgoibarrek ere estutu egin gintuen... Hala ere, arrazoi duzu, orain arte oso ondo egin dugu lan. Hala jarraitzea gurako genuke, baina ikusi egin behar, denboraldiak aurrera egin ahala lesioak hasiko dira-eta.

**Hortaz, guztiok pozik...**

Bai, momentuz behintzat bai. Entrenamendu saioetan galdetzen diet arazorik izanez gero esateko, eta ez dirudi ezer dagoenik. Pozik dabiltzan bitartean, ondo. Gainera, taldekide guztiek jokatzeko aukera izaten dute. Orain artekoan guztiak dabiltza jokatzen antzera, eta ez dut uste kexarik izango dutenik.

**Lehen urtea duzu eurekin?**

Bai, gehienekin bai, baina ezagutzen ditut asko, Almenen eskola kirola eman nielako. Orduan ere oso ondo ibili ziren eta denboraldi polita egin zuten, eskola kiroleko txapeldunak geratu ziren.

> *"Taldekide guztiak dabiltza jokatzen antzera eta ez dut uste kexarik izango dutenik"*

**Aurten itzuli zara UDAra entrenatzaile lanetan, baina urte asko egin zenituen lehen.**

Bai, urte asko egin nituen mutikoak entrenatzen eta gero uztea erabaki nuen. Orain dela bi urte eskola kirola ematen ibili nintzen, eta orain, entrenatzaileak falta direla-eta itzultzea eskatu zidaten. Pena da gero jende falta egotea, baina lan honetan asko daukazu galtzeko eta gutxi irabazteko.

> *"Hobetu egin dezakegu; hiru taldetako mutilak batu dira eta taldea osatzen gabiltza"*

**A ze itzulera...**

Bai, baina esandako moduan hasi besterik ez dugu egin denboraldia. Bestalde, guk geuk ere hobetu dezakegula uste dut; hiru taldetako mutilak elkartu dira, eta oraindik taldea osatzen gabiltza.

## LABUR

### Fran Miguelek irabazi zuen Arrasaten jokatu zuten Xake Bizkorreko Txapelketa

Joan zen egubakoitzean banatu zituzten Arrasate Hiriko Xake Torneoko sariak, eta bide batez Xake Bizkorreko Txapelketa jokatu zuten. Fran Miguel aretxabaletarrak irabazi zuen, Miguel Navarroren aurretik geratuta. Horrela, Xake Torneoan geratu zitzaion arantzatxoa aterako zuen Franek; izan ere, Miguel Navarrok irabazi zion azken partida eta 6. postuan geratu zen.

Gipuzkoako Txapelketa jokatzen dabil, gainera, Fran Miguel. Bi partida jokatu ditu eta puntu eta erdi dauka.

### Hiru pilota partidu jokatuko dituzte gaur, 19:00etan hasita, Iturrigorri frontoian

Gipuzkoako Txapelketa aurrera doa eta Aretxabaletako bost bikoteak hala-hola dabiltza. Oraindik, baina, ezin esan hurrengo fasera pasatuko diren. Hainbat partidu jokatuko dituzte aste bukaeran, eta hiru bikotek etxean daukate hitzordua gaur, egubakoitza, 19:00etan: Uribarren eta Perez de Labeagak Eibarko bikote bat izango dute aurrez aurre; Akizu eta Gardokik, Loiordi elkartekoa; eta Uriarte eta Oionek, Tolosakoa. Errasti anaiak, ostera, Tolosara joango dira eta Lasagabaster eta Altzola Bergarara.

### Murrukixoko piraguak lekuz aldatu dituzte ur araztegi zaharra bota egingo dutelako

Murrukixo Mendizale Elkarteak Goroetan dagoen ur araztegi zaharrean gordetzen zituen piraguak. Orain, baina, bota egin behar dute aipatutako txabola, eta lekuz aldatu dituzte piraguok. Murrukixoko piraguismo saileko kideek ez dute erabaki zela antolatu giltzarena, hau da, non utzi eta ze baldintzatan. Orain arte Azkena tabernan izaten zuten, eta erabiltzaileak hara joaten ziren eskatzera. Lokal berriko giltzak non utzi erabakitzen dutenean jakinaren gainean jarriko dituzte bazkide eta herritarrak.

### Gipuzkoako gazte eta kadete mailetako karate txapelketa jokatuko dute azaroaren 5ean

Aretxabaletako kirol etxean jokatuko dute Gipuzkoako gazte eta kadete mailetako karate txapelketa. UDAko karate sailak antolatu du, eta azaroaren 5ean izango da, zapatua, 16:00etan. Karate taldean 20 neska-mutiko inguru dabiltza Odilo Vazquez entrenatzailearen esanetara eta hainbatek jardungo dute norgehiagokan.

## PARTIDUAK

**FUTBOLA**
**Allerru-UDA**
Preferentea.
Domeka.
**UDA/Arizm.-Bergara**
Bigarren mailako kadeteak.
Zapatua. 10:30 Ibarra.

**PILOTA**
**Aretxab. - Eibar**
Hirugarren mailako kadeteak.
**Aretxab. - Tolosa**
Hirugarren mailako seniorrak.
Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

## EMAITZAK

**FUTBOLA**
**UDA 3 Zestoa 0**
Preferentea.
**Urki 0 UDA 2**
Bigarren mailako erregionala.
**Vasconia 3 UDA/Arizm. 0**
Ohorezko gazteak.
**UDA/Arizm. 1 Amaikak Bat 2**
Lehen mailako gazteak.
**UDA/Arizm. 1 Aurrera 0**
Lehen mailako kadeteak.
**Urki 1 UDA/Arizm. 5**
Bigarren mailako kadeteak.
**Añorga 2 UDA/Arizm. 0**
Ohorezko infantilak.
**Eibar 2 UDA/Arizm. 0**
Infantil txikiak.
**UDA 5 Mondra 1**
Alebinak
**Arraste/Arizm. 3 UDA/Arizm. 0**
Emakumezkoen liga (kadeteak).
**UDA 3 Dinamo Hernani 1**
Areto futbola.

**PILOTA**
**Aretxab 13-Bearzana 22**
**Aretxab 22-Bergara 12**

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14


Matikua jatetxea
Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Karlos
Harakina
Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

Dorleta taberna
Bezeroen zerbitzura
Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

# LEHIAKETAK

### BERGARA

▸ **Sexu-biolentzia salatzeko** kartel lehiaketa deitu du Beke-k, Bergarako Emakumeen Kultura Elkarteak. 15 urtetik gorakoek parte har dezakete, bakarka edo taldeka, 50 x 35 cm-ko kartelekin. Derrigorreko testua da *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!* Lanak kultura etxera eraman behar dira azaroaren 18ra bitartean. 200 euroko saria banatuko dute azaroaren 25ean, Nazioarteko Sexu Biolentziaren Aurkako Egunean.

### DEBAGOIENA

▸ **11. San Andres bertsopaper lehiaketa** deitu du …eta kitto! euskara elkarteak Deba ibarrean jaio, bizi edo ikasten dutenendako. Debagoiendarrek parte har dezakete 14 urtetik gorakoen kategorian, gai eta doinu libreko bertsoekin. 120 eta 60 euroko sari bana daude. Bidali lanak honako helbidera: Urkizu 11, solairuartea; 20600, Eibar. Mugaeguna da azaroaren 7a.

▸ **Gabonak zoriondu eta urte berri ona opatzeko** argazki lehiaketa deitu du Topaguneak. 14 urtetik gorako edozeinek parte har dezake, afizionatu zein profesionala izan. Bere bezeroei Gabonak zoriontzeko erabiliko du euskarri hori Topaguneak. Lanak aurkezteko mugaeguna da azaroaren 18a. Argibideak, *www.topagunea.org* helbidean, 94 621 51 16 telefonoan edo *gazteak2@topagunea. com* e-posta helbidean.

# MUSIKA

### ARRASATE

▸ **Señor No, Lobo Electrico eta La Banda del Abuelo** taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:00etan. Gero, 03:00etan, Angel (Kogollo crew) disko jartzaileak egingo du emanaldia.

### BERGARA

▸ **Musika eta opari zozketa** izango dira gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan: 22:00etan, Elektro Pelox Evolutionen kontzertua; 23:00etan, DJ Ene! vs. Dj D_2 (Kogollo crew) disko jartzaileen emanaldia; eta, gau osoan, Laino skate eta snow dendaren lehen urteurreneko opari zozketa.

▸ **Eraso taldeak** *Kontra* disko berria aurkeztuko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Aby Kem Bergarako taldeak ere joko du.

# Zinema

## ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

***El secreto de Vera Drake***
Egubakoitza: 22:30.

## ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

***La huella***
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

***Los cuatro fantásticos***
Domeka: 17:00.
Martitzena: 17:00.

***Obaba (euskaraz)***
Martitzena: 19:30.

***Sevigne***
Eguena: 20:30.

## BERGARA

■ PILOTALEKUA

***Aupa Etxebeste!***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30:

## ELGETA

■ ESPALOIA ANTZOKIA

***Amanece, que no es poco***
Eguaztena: 21:30.

## OÑATI

■ KULTURA ETXEA

***Obaba (euskaraz)***
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:30.

***American Splendor***
Eguena: 20:00.

## EIBAR

■ UNZAGA

***Transporter 2***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***Otros días vendrán***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

## GASTEIZ

■ GURIDI

***La leyenda del zorro***
17:00, 19:45, 22:30.

***Una vida por delante***
17:30, 20:00, 22:30.

***¡Goool!***
17:00.

***The dark***
17:00, 19:45, 22:30.

***Aupa Etxebeste! (euskaraz)***
19:45, 22:30.

***La vida secreta de las palabras***
17:30, 20:00, 22:30.

***Hostage***
17:00, 19:45, 22:30.

***Una historia de violencia***
20:00, 22:30.

■ FLORIDA-GURIDI

***Princesas***
17:00, 22:30.

***Flores rotas***
17:00, 19:45, 22:30.

***Siete vírgenes***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El leñador***
17:00, 19:45, 22:30.

***Arcadia***
17:30, 20:00, 22:30.

***Eros***
17:30, 20:00, 22:30.

***El mercader de Venecia***
19:45.

***Obaba***
17:00, 22:30.

***El aura***
19:45.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

***Transporter 2***
16:00, 18:00, 20:00, 22:20, 00:40.

***Frágiles***
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

***Boogeyman, la puerta del miedo***
22:00, 00:30.

***La leyenda del zorro***
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

***¡Goool!***
16:30, 19:10, 22:00, 00:30.

***El secreto de los hermanos Grimm***
16:30.

***Hostage***
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

***The dark***
16:00, 18:00, 20:00, 22:20, 00:40.

***Torrente 3***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

***El habitante incierto***
19:00, 22:00, 00:30.

***De boda en boda***
16:30, 19:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

***De boda en boda***
20:05, 22:25, 00:45.

***La leyenda del zorro***
12:15, 16:00, 17:15, 18:45, 20:00, 21:30, 22:45, 00:15.

***Flores rotas***
12:15, 16:35, 18:40, 20:45, 22:50, 00:55.

***Princesas***
12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

***Transporter 2***
18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

***Wallace y Gromit: la maldición de las verduras***
12:15, 15:50, 17:50.

***Charlie y la fábrica de chocolate***
12:15, 16:05.

***Una historia de violencia***
12:15, 15:55, 17:55, 19:55, 21:55, 23:55.

***Torrente 3***
19:45, 21:45, 23:45.

***El método***
20:10, 22:25, 00:35.

***Frágiles***
19:50, 21:50, 23:50.

***El clan de los rompehuesos***
19:30, 22:05, 00:20.

***El secreto de los hermanos Grimm***
12:15, 15:30, 17:50.

***Hostage***
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

***¡Goool!***
12:15, 15:30, 17:45.

***The dark***
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

***Serenity***
12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.

***Somne***
12:15, 15:45, 17:45.

***El aura***
12:15, 16:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

***Transporter 2***
20:35, 22:30, 01:00.

***Frágiles***
20:15, 22:25, 00:45.

***7 vírgenes***
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

***Una vida por delante***
12:10, 17:15, 19:45, 22:10, 00:45.

***La leyenda del zorro***
12:00, 16:25, 17:00, 19:00, 19:45, 22:00, 22:20, 00:45, 01:00.

***The dark***
12:00, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:45.

***Bibi, la pequeña bruja***
12:00, 16:05, 18:20.

***Wallace y Gromit: la maldición de las verduras***
12:00, 16:10, 18:10, 20:10.

***¡Goool!***
12:15, 17:10.

***Torrente 3***
12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

***Somne***
12:10, 16:10, 20:20.

***Una historia de violencia***
12:00, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:45.

***Obaba***
22:05, 00:30.

***Serenity***
18:00, 22:15, 00:45.

***La novia cadáver***
12:15, 16:30, 18:20, 20:05, 22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

***Las llaves de casa:* ●●●● / *Charlie y la fábrica de chocolate:* ●●●● / *Aupa Etxebeste!:* ●●● / *Princesas:* ●● / *Obaba:* ●● / *Una vida por delante:* ●●**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## UNA HISTORIA DE VIOLENCIA

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** David Cronenberg.
**AKTOREAK:** Viggo Mortesen, Maria Bello, Ed Harris, William Hurt.

Film honen lehen plano luzeak oso ondo islatzen du normala ematen duen egoera baten barruan gerta daitekeen urduritasun sentsazioa. Eszenaren bukaeran ikusiko dugu sentsazio horren baieztapena. *Una historia de violencia*-k erakusten du nola normaltasun itxura duen mundu baten barnean biolentzia ezkutu bat nabarmentzen den. Jarraian ikusiko dugu perfektua ematen duen familia baten sendotasuna indarkeriarengatik astindua. Eta, horrela, thriller-aren egiturak hartuz eta zinema beltzean barneratuz, Cronenbergek bere istorioen (*Videodrome, La mosca, Inseparables, Crash, Spider*) izaera gaixoa, labirintu itxurakoa eta morbosoa zerbait mugatuz, bere beste filmekin zerikusi handia duten gaiak eta pertsonaiak jorratzen ditu. Beti gustatu izan zaio gizakiaren barnean sartzea, horren alde ilunean eta ezkutuan, eta horren alde arrazionalaren eta alde irrazionalaren arteko norgehiagokan zirikatzea: arrazonamendua eta abere-sena gizakian elkarrekin bizi dira eta batzuetan bigarrena kanpora irteten da. Adibide gisa, eskaileretako eszena indartsua dugu.

*Una historia de violencia*-k zinema beltza klasikoen iturritik edaten du:



